

CABELLO/CARCELLER

Bi emakume artistek elkarlanean jarduten dute 1996. urteaz geroz, eta egiten dituzten proposamenetan era askotako gaiak tratatzen dituzte, beren lanetan aldizka agertzen eta desagertzen den egitura baten inguruan; horregatik, zaila izaten da, batzuetan, lanak interpretatzen lagun dezaketen hari gidariak zehaztea. Beren obretan, diskurtso nabarmenegiak ez azaltzea erabaki baldin badute ere, abiagune izaten dute beti jarrera politiko bat, emakume artistak «askotan, ikusle gisa, gogaitu egiten gaitu homogeneousotasun normalizatzailea aurkitzeak, itxuraz asaldatzaile diren irudien atzean. Guk aurkako jokaera proposatzen dugu. Gure lan itxuraz tolesgabeen atzean, identitate aldakorrek ezkutatu dira, gorputz harrigarriak». Xedea da gizartea bultzatzea arauetatik urruntzen diren begiradez elikatzerara; Cabello/Carceller-ek irudikapen kolektiboaren arreta bereganatu nahi dute, interpretazio *ezberdinak* bazter uzten tematzen baita, eta gizartean eztabaida sortu nahi dute, ikuspegi aniztasuna abiaburu hartuta. «Gure jomuga jasotzaile aktiboak dira, jasotzeko prozesu kontzientea nahi dugu, informatuta egoteko beharra defendatzen dugu, testuingurua aztertzeko eta lana ikertzeko beharra. Lana ez dadila lehenengo begiradarekin interpretatu»; horregatik, saihesten dute beren lanak jasotzeko prozesuak zuzentzea, eta ez diote ikusleari mugarik jartzen, lanak interpretatzen ahalegintzen denean. Eskakizun horren zailtasunez jabetuta, aurrez ezarritako antolaketa sinbolikoetatik askatzea proposatzen dute, era horretan sexu, gizarte, arraza eta beste alor batzuekin lotuta aurreikusten diren gai, forma eta edukiak alde batera uzteko aukera izan dezaten.



Hala eta guztiz ere, badakite generoaren ikuspegiak sinplifikazio kritikoa gordetzen duela, saihesten zaila dena, eta horregatik saiatzeko dira sailkapenetatik ihes egiten. Nolanahi ere, begien bistakoa da nork bere burua politikoki definitzeko beharraren eta lerrokatzea saihesteko beharraren artean sortzen den tirabira. Cabello/Carcellerrek lerrokatzea saihesten ahalegintzea aukeratu dute, eta beren arte-lana zabaldu eta artista objektuen ekoizlea dela dioen definizioarekikoak egin dituzte. Arte-kritikan jarduten dute, eta hainbat erakusketaren komisario izan dira, «nekez aurkituko gaituzte gu estudioan», baieztatu zuten. Beren ibilbidean, sarritan, arazo bat topatu izan dute, alegia: bi artistek gaiak ikuspegi aski agerikoetatik azaltzen baldin badituzte ere, beren diskurtsoak ez dira ulertu. Helena Cabello eta Ana Carcellerrek, "Desakordioak. Feminismoaren mutazioak" mintegiko egitarauaren barruan, beren lanen hautaketa bat aurkeztu zuten, lanak hobeto ulertzeko argibideak eskaintzearen. Beren parte-hartzeari hasiera eman zioten bi bideo proiektatuz, *Bolloak* 1996. urtekoa, eta *Erabiltzeko jarraibideak*, 2004.

urtekoa, denboran bata bestetik urruti dauden lanak izan arren, bien arte-jardunaren bilakaera ikusteko balio dutenak.

Bolloak beren hitzaldiaren hasieran proiektatu zuten bideoetako bat izan zen. 1996. urteko lana da, *bollerez*, emakume lesbianeaz, hitz egiten duena era argian eta esplizituan; baina, aurkezten duten identitatea helezina da, zatikatuta dago eta ez da irudikapenen espazioan sartzen. Cabello/Carcellerrek jolas bat proposatzen dute hizkuntzak performancerako duen joeraren eta performance-ekintzaren artean. «Irain gisa erabiltzen diren terminoaz *-bollera*, esaterako- berriz jabetzeak ez zuen izan espero genuen eragina. 1996a ez zen horretarako urtea, hainbestekoa zen ezjakintasun-maila ezen jendeak harritzeko atrebentzia ere hartzen baitzuen, *bollerak* deitzen digutela jakiten zuenean». Urte hartan ere, *Identity game* aurkeztu zuten. Instalazio bat zen, ping-pongean aritzeko mahai bat eta paletak, eta paletak bi artisten aurpegiak zituzten. Itxuraz, lanak jolastera bultzatzen zuen. Baina jolasean saiatzean, mahaiaren neurriek –oso neurri txikiak– eta paletak mahaiari katez lotuta egoteak ezinezko bihurtzen zuten dibertitzea. «Lan horren bidez, ideia batetik urruntzen saiatu ginen, alegia, pertsona bakoitzak identitate bat duela dioen ideiatik. Kategorizazio hori arriskutsua delakoan gaude, eta identitatea zalantzan jartzen duen jarrera hartzen dugu», baieztatu zuten.

Cabello/Carceller protagonista izaten dira egiten dituzten lan anitzetan. 1990ko hamarkadaren erdialdean artista gutxi hitz egiten zuten identitatearen inguruko gaiei buruz beren burua ere barne sartuta, eta aski erraza izaten zen kausa lesbianaren ordezkari bihurtzea, «guk ez genuen espazio hori bete nahi, ezta identitate lesbianarik sortu ere; guk geure identitatea sortu nahi genuen, eta gure begirada eta irudiak bakarrik baliozkoak izan zitezten».

Generoarentzat zehaztuta dagoen espazioa kutsatzeko bideetako bat *degeneratua* dena hausnarketarako estrategia gisa erabiltzea da. «Gaztelaniaz *degeneratu* terminoak hainbat adiera ditu. Lehenik eta behin, *arte degeneratua* adierazten du; bigarrenik, buru-egoera eta egoera moral anormala edo galbideratua duten pertsonak definitzeko balio du; hirugarrenik, arte-generoen sailkapena egiteko erabiltzen da; eta gainera, *genero* hitza *gender* terminoaren baliokidetzat onartu da. Guk erabaki genuen *degeneratu* terminoa baliatzea adiera berri bat balitz bezala, eta adiera horrek adieraziko luke genero arau-jartzaileari atxikimendurik eza», azaldu zuten. Denboraren poderioz, generoarekin jokatzeko eta generoaren inguruan ikertzea ezinbesteko jardura bilakatu da Cabello/Carcellerren lanaren barruan. Beren lanetan, hala nola *Izenbururik gabe/Duelua* lanean, saiatzen dira protagonistei genero zalantzarria ezartzen, argi eta garbi ez definitzen. Lan horren oinarria Goyaren *Duelu makiladaka* margolana da; aurkezten diren irudiak eszenan kokaturik daude, zehazki, Goyaren laneko protagonisten gisa berean. Itxuraz, jolas tolesgabea da; baina, zertxobait sakonago aztertuz gero, ikuslea ohartuko da zer proposatzen den, alegia jolas ezinezko bat, protagonistek belaunetaraino lurrean sartuta baitituzte hankak.

Izenbururik gabe/Zalantzak 1998ko diptiko bat da, irudi bera duten bi argazki osaturik. Errepikapen alderantzikatua da, irudiaren originala zein den eta zein ez jakitea galarazten duena. Lanaren ikuspegi horren bidez saiatzen dira ikusleak ezer segurutzat jo ez dezan. Lana igarotzeko espazio batean kokatzen da, eta espazio hori kategorizatzea ezinezkoa da; ezin dugu jakin irudiaren protagonistak gizonak ala emakumeak diren, eta elkarrekin borrokatzen edo elkar maitatzen ari diren. Irudiaren irakurgarritasun, argitasun eta bereizmen kodeak aldatuta daude, «irudi artegatuak dira, etengabe mugitzen direnak». Irudi bikoiztuak Cabello/Carcellerrek behin eta berriro erabilitako baliabide dira, era horretan agerian jarri nahi baitute elkarlanean ari diren bi pertsonen egindako lanak direla.

Beren ibilbidearen une batean, hausnartu egin zuten bidaiei eta ibilbideari buruz, identitate-prozesuen barruan mugitzeko edo aurrera egiteko ezintasunari buruz. «Ikerketa horren emaitza *Utopia joan-etorria* lana izan zen, eta hor errepikatzen da nora zaramatzen ez dakizun ibilbidearekiko grina, ibilbidearen bukaerara iritsiko ote zaren zalantzarekiko grina», adierazi zuten. *Utopia joan-etorria* proiektio bikoitza da; bertan, pertsonaia androgino bat, eszena libre, ireki batean kokaturik, hondartza-itxurakoan, ibiltzen hasten da. Une batean, aurrera egitea galarazten dion goiera bat sortzen da eta itzuli egiten da; baina, gune batera iristean, beste goiera bat sortzen da, eta berriro itzuli behar du, atzera berriro. Lan hori uztartuta dago, Cabello/Carcellerren hitzetan, identitatea eraikitzeari buruzko diskurtsoen alderdi batekin, bi artistak gehien kezkatzen dituen alderdiarekin, hain zuzen ere: bizitzeko egokitzen hartzen diren espazioekin. Beren iritziz, diskurtso *queer* batzuek pertsona ikertzen zuten ebakitako silueta balitz bezala, bizi duen espaziotik bereiztea egongo balitz bezala, «gure ikuspegitik, ingurunea ere garrantzitsua da, eta espazioari buruzko ikerketa bati ekin genion. Zerk bilakatzen du bizigarri espazio bat? Zergatik hartzen dira espazio batzuk bizitzeko egokitzen eta beste batzuk ez?».

Cabello/Carcellerrek ikerketari ekin zioten argazki batzuk eta igerileku hutsetan egindako instalazio bat erabiliz, eta jakiten saiatu ziren espazio horiek nola funtzionatzen zuten, jendea begiratu ere egin gabe mugitzen deneko lekuen estereotipo baitira. Lan horren inspirazio-iturria artistek San Frantziskora egindako bidaia bat izan zen; lurralde samingarria zen artean, IHESen birusak suntsitua, inondik ere bat ez zetorrena David Hockneyk bere margolanetan pintatzen zuen gayen ghetto liluragarriarekin. «Une hartan, galdutako zorionari buruz galdetzen hasi gintzaizkion geure buruari. Zertan zen igerileku zoriontsu hori husten zutenean. Utopiaren suntsipenaren ideia lantzen hasi ginen».



Landu dituzten proiektu berrienetako baten bidez, zinemaren teorian eta praktikan miazten saiatzen dira, zinema generoen rol estereotipatuen espazio sortzaileetako bat baita, «zinema tresnarik indartsuena da oinordetzan hartu dugun gizarte mota betikotzeko, eginkizunak geure egiten dituguneko eskola da. Pantaila, nolabait, zeure burua islatuta ikusten duzun ispilua da», baieztatu zuten. Zinemari buruz egindako beren lehenengo lana *The end* izenburuko argazki-saila da; lan hartan, zinema-aretoako besaulki-patioaren irudiak, bi proiektioaren artean igarotzen den aldiak eginak, aurkeztu zituzten. Azaldu zuten bezala, interes handia zuten zinema-aretoetako denbora hori ikertzeko, kontuan hartzen ez dena eta balio ez duena, alegia. Hurrengoak, 2004ko *Casting James Dean*. *Kausarik gabe errebelde* izenekoak, casting-prozesua aztertu nahi du, hau da pertsonaiak sortzen ari diren baina istorioa oraindik hasi ez den unea. Lanaren helburua zen zinema klasikoaren

gizonezko eredu batzuk aztertzea, *castinga* egiteko prozesua faltsutzea, hartara generoaren trukaketak generoaren –maskulinoa, kasu honetan– eraikuntzaren prozesua argitzeko. Hamasei emakumek *Kausarik gabe errebelde* filmaren eszena bat antzeztu zuten, hain zuzen ere James Deanen pertsonaiak gurasoei esaten dienean duela baten erronka jo ziola mutil bati, eta mutila hil zela. Eszena horretan, James Deanek egindakoa zurriz du esanez egin beharra izan zuela, beste mutilak "oiloa" deitu ziolako. Cabello/Carcellerrek azaldu zuten, beren helburua zen frogatzea maskulinitasuna arauak ezagutzen dituen edonork joka dezakeela, ikasi besterik ez dagoela. Ildo horretakoa da hitzaldiaren aurretik proiektatu zuten bideoa, hots, 2004ko *Erabiltzeko jarraibideak*; lan horren bidez aditzera eman nahi dute keinuak generoaren eraikitzaile nagusietakoak direla.

Beren hitzaldia bukatzeko, *Autorretratu iturri gisa* izeneko irudia erakutsi zuten. Cabello/Carcellerren hitzetan, jolas bat da, Marcel Duchamp eta Bruce Naumann artisten lanek dituzten genero-erreferentzia argiak parodiatu nahi dituenak.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago.

Hemengo testuak nahiz itzulpenak kopia, banatu eta jende aurrean erakutsi ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.

Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

- [gaztekeraz](#)
- [ingelesez](#)